
FUERA DE COBERTURA
NO DEJES QUE SE QUEDEN FUERA
NADIE SIN HOGAR
Campaña de personas sin hogar
30 de octubre de 2022
ESTALDURARIK GABE
EZ ITZAZU KANPOAN UTZI
INOR EZ ETXERIK GABE
Etxerik gabeko pertsonen kanpaina
2022ko urriaren 30

# SIN COBERTURA SANITARIA, SOCIAL O LEGAL... SIN UN HOGAR DIGNO.

Cada vez son más las ***personas*** desvinculadas de la sociedad. Sin protección, sin recursos, sin oportunidades..., con sus ***derechos vulnerados***, personas que, hoy más que nunca, necesitan una ***red de apoyo*** que las sostenga, las integre y les permita ***participar***.





# OSASUN-, GIZARTE- EDO LEGE-ESTALDURARIK GABE... ETXE DUINIK GABE

Gero eta ***pertsona*** gehiago daude gizartetik baztertuta. Babesik gabe, baliabiderik gabe, aukerarik gabe, beren ***eskubideak urratuta...*** gaur egun, inoiz baino gehiago, sostengua eskainiko dien, integratuko dituen eta ***parte hartzeko*** aukera emango dien ***Laguntza-sare bat*** behar dute.

NADIE SIN HOGAR

# TENER UN TECHO, NO ES TENER UN HOGAR.

La persona que llamamos ***sin techo*** o ***sin hogar*** no es solamente la persona que no tiene físicamente un techo bajo el que cobijarse, también es la que vive sin lo necesario, sin lo esencial. En una vivienda insalubre, sin acceso a luz y agua, en una cueva o chabola, debajo de un puente, unas maderas superpuestas, o hacinadas con otras muchas personas.

***Estas situaciones hacen imposible vivir con dignidad.***





INOR EZ ETXERIK GABE

# TEILATU BAT EDUKITZEA EZ DA ETXE BAT EDUKITZEA.

***Etxegabe*** esaten diogun pertsona ez da babesteko teilatu fisiko bat ez duena bakarrik: beharrezkoa dena eduki gabe bizi dena da etxegabea, oinarrizkoa ere ez duena. Etxebizitza osasungaitzetan bizi dena, argirako eta uretarako sarbiderik gabe, koba edo txaboletan, zubi baten azpian, gainjarritako zur batzuen azpian edo beste pertsona askorekin pilatuta bizi dira.

***Egoera horietan, ezinezkoa da bizimodu duina izatea.***

# ELIMINEMOS ESTEREOTIPOS Y PREJUICIOS. SON PERSONAS COMO TÚ.

***No estigmaticemos a la gente por dónde vive o cómo vive.***

Ante todo, son personas con tus mismos derechos.

No siempre se trata de un hombre con la ropa raída, con problemas de alcohol o drogas. ***Hay muchas personas sin techo o sin hogar con las que nos cruzamos por la calle:*** mujeres, hombres, jóvenes, sin casa, sin empleo, sin familia a la que pedir ayuda, sin amistades.

Los espacios para la vida de verdad, donde se conjuga el dolor, la pobreza y la soledad, y también la alegría, ***el encuentro y la celebración***, son los que nos permiten vincularnos con los demás, nos sostienen, nos recuerdan nuestro nombre, ***nuestra esencia.***

# EZABA DITZAGUN ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK. PERTSONAK DIRA, ZU BEZALAKOAK.

***Ez dezagun jendea estigmatizatu non edo nola bizi den kontuan hartuta.***

Lehenik eta behin, zure eskubide berak dituzten pertsonak dira.

Ez da beti izaten arropa saretua duen gizon bat, alkohol- edo droga-arazoak dituena. ***Kalean gure ondotik pasatzen diren etxegabe asko daude:*** emakumeak, gizonak, gazteak... etxerik gabe, lanik gabe, laguntza eskatzeko familiarik gabe, lagunik gabe.

Egiazko bizitzarako guneek –hau da, mina, pobrezia eta bakardadea baina poza, ***topaketa eta ospakizuna*** ere bateratzen direnak– aukera ematen digute besteekin konektatzeko, eutsi egiten gaituzte; gure izena, ***gure esentzia*** gogoratzen dizkigute.



INOR EZ
ETXERIK
GABE

NADIE
SIN
HOGAR





# DALES COBERTURA.

No dejes que las personas sin hogar se queden fuera de cobertura, desconectadas y desvinculadas de protección. Son personas, como tú, como yo. Cambia la mirada, no las juzgues, participa con nosotros para que puedan reconectarse con la vida.

- **1 de cada 5 hogares en el Estado español sufre exclusión residencial.**
- **El 2,3% de hogares sufre algún tipo de amenaza de expulsión de su vivienda.**
- **El porcentaje de hogares que vive en zonas marginales se cuadriplicó en los últimos tres años.**

(Informe Fundación Foessa 2022 "Evolución de la cohesión social y consecuencias de la Covid-19 en España").

# EMAN IEZAIEZU ESTALDURA.

Ez onartu etxegabeak estaldurik kanpo, baztertuta eta babesik gabe geratzea. Pertsonak dira, zu eta ni bezalakoak. Aldatu zure begirada. Ez itzazu epaitu: ***parte hartu*** gurekin ***bizitzarekin berriro konektatu*** ahal izan daitezen.

- **Estatuko 5 familiatik batek bizitegi-bazterketa jasaten du.**
- **Etxeen % 2,3ak etxebizitzatik kanporatzeko mehatxuren bat du.**
- **Eremu marjinaletako etxeen ehunekoa laukoiztu egin da azken hiru urteetan.**

(Foessa Fundazioaren 2022ko txostena: "Kohesio sozialaren bilakaera eta COVID-19aren ondorioak Espainian").



NADIE
SIN
HOGAR

# POR UN CAMBIO TOTAL: POR UNA RED SOCIAL PARA QUE SU VIDA NO SE APAGUE.

Desde la ***Campaña de Personas sin Hogar,*** nuestro empeño durante 30 años sigue siendo el de hacer visible la realidad de vulnerabilidad extrema que viven las personas más pobres.

En este tiempo ha ***aumentado el riesgo*** de que más personas terminen en situación de calle. Pero si se dedican ***recursos***, ***atención y cuidado*** a las personas, sus vidas mejoran y pueden ***recuperar espacios de dignidad***, derechos y afectos.

Ciudadanía, medios de comunicación, Servicios Sociales, Administraciones, estamos llamados a ***implicarnos*** y a no pasar de largo ante una realidad que cada día crece y se hace más preocupante, y que va debilitando el bien común de nuestra sociedad.

***La sociedad somos todas las personas.***

INOR EZ
ETXERIK
GABE

# ERABATEKO ALDAKETAREN ALDE. SARE SOZIAL BATEN ALDE HAIEN BIZITZA ITZAL EZ DADIN

***Etxegabeen aldeko Pertsonen Kanpainan***, 30 urteko gure ahalegina da pertsona pobreenek bizi duten muturreko zaurgarritasunaren errealitatea bistaratzea.

Denbora horretan, pertsona gehiago etxerik gabe geratzeko ***arriskua areagotu egin da.*** Baina pertsonei baliabideak, ***arreta eta zaintza eskainiz gero***, haien bizitza hobetu eta ***duintasun-espazioak, eskubideak eta afektuak berreskuratu ditzakete.***

Herritarrak, komunikabideak, Gizarte Zerbitzuak, Administrazioak... ***inplikatzera*** behartuta gaude, ez ikusiarena egin gabe egunetik egunera hazten ari den eta gero eta kezkagarriagoa den errealitateari, gure gizartearen ondasun komuna ahultzen ari baita.

***Gizartea pertsona guztiak gara.***

NO DEJES QUE SE QUEDEN FUERA

NADIE
SIN
HOGAR

# Campaña de personas sin hogar
# 30 de octubre de 2022

ORGANIZA
Cáritas

COLABORA

FINANCIA

EZ ITZAZU KANPOAN UTZI

INOR EZ
ETXERIK
GABE

# Etxerik gabeko pertsonen Kanpaina
# 2022ko urriaren 30

ANTOLATZAILEA
Cáritas

LAGUNTZAILEAK

FINANTZATZAILEA